

CEIP SAN INAZIO HLHI

ZURE ESKOLA PUBLIKOA

2 URTETIK AURRERA

D EREDUA

MATRIKULAZIO EPEA: Urtarrilaren 30etik

Otsailaren 10era

ESKOLA ZABALIK EGUNA: Otsailaren 1ean

ETORRI GU EZAGUTZERA!



Kantabria 2, 48015. Tel: 944758364

014924aa@hezkuntza.net // www.saninazioikastetxea.com



Deustuko
Ikastola

Euskaraz
Hezi
eta
Bizi!

www.deustukoikastola.net

prest!



BERBETAN: **NAGORE MUJICA ALVAREZ** ETXERAT ELKARTEKO KIDEA

ERREPORTAJEA: **DEUSTUKO KANALA (II)** BARKUA: **JM EZKURDIAREN 'GERNIKA'**



OROIMEN BISUAL KOLEKTIBOA

Haceria Arteak elkarteak ZAWP egitasmoa martxan jarri zuenean, duela bederatzi urte, bere lan ildoetako bat oroimenaren lanketara bideratzea erabaki zuen. Abandoibarran gertatutakoa, Deustuibarran eta Zorrotzaurren ez gertatzeko.

Birmoldatzeko txanda iritsi zitzaionean, Abandoibarrari *tabula rasa* ezarri zioten, bertan egondakoaren berri ematen zuen oro ezabatuz. “Ez da geratzen aztarna ez fisiko ez birtulik”, dio Ruth Mayoral Haceria Arteak elkarteko kideak. “Edo hiritarren artean behintzat ez da sozializatu”.

Bilboko azken ‘super planak’, Zorrotzaurre Plana izenez ezagutzen denak beste auzo bat guztiz eraldatuko du. “Etorkizunean oso *guay* izango da, baina inork ez du jakingo hemen izan ziren auzotar, jarduera eta ekimenen berri”. Ahazturak abiadura bizia baitu. Izan ere, aldaketa handiak heldu baino lehen iritsi da. Gaur egun gutxi ezagutzen dute Deustuibarran eta Zorrotzaurren izan den aberastasuna. “Hemen milaka denda, tailer, langile, enpresa izan dira. Eta hori askoren iruditerian eta oroimenean ez dago. Askorentzat Bilbo Euskaldunako biribilgunean bukatzen da. Turistei ematen zaizkien hiriko planoetan horrela da, Euskaldunako errotondan bukatzen da Bilbo”. Edota Mao Mao diskoteka dagoen lekua da Zorrotzaurre edota garabiak eramandako autoen biltegia dagoen lekua.

“Nola jendarteratu aspaldiko historia eta historia berriagoa? Nola erakarri jendea Deustuibarrara eta Zorrotzaurrea? Nola ulertarazi hau ere hiriko zati dela?”, ZAWPeko lantaldeko kideen hasierako galderak izan dira hauek. Horregatik dute lan ildotzat Deustuibarra eta Zorrotzaurreko historia gordetzea, “ez soilik auzoko portu eta industria jardueraren historia gordetzea, baita azken urteetan gertatutakoa biltzea ere,

laster historia izango delako”. Eta guzti hori alkateak Zorrotzaurre berria inauguratuko duen zinta moztu baino askoz lehenago egin nahi dute.

Eta lanari ekin zioten. Ekimenak antolatzen hasi ziren, jendea erakarri asmoz, eta auzoan egiten zena gordetzen hasi ziren. “Aitortza egiteko eta balioa emateko. Lehenaldikoa eta bihar iragana izango den gaur eguneko, nolabait jasotzen eta gordetzen. Jendeak eskura izan dezan informazio guzti hori, auzoa zelari aldatu den jakin dezan, 40ko hamarkadatik gaur arte auzora begira diseinatu diren ‘super plan’ guztiak, eta gauzatu ez direnak, besteak beste”. Guzti hori auzotarrek, edo auzoko langileek kontatua, eurek emana.

2010ean hasi ziren argazkiak eskatzen bai auzotarrei bai auzoko enpresei. Eskaneatu egin dituzte formatu handian “behar den unean aukera mugarik ez izateko”. Argazkiak digitalizatu ostean, jabeek itzultzen dizkiete, originalak paper formatuan, eta baita formatu digitalean ere izan ditzaten. Bildutako argazki guztiak ZAWPen web gunean ikus daitezke.

Dokumentuak ere badira. Esaterako, Deustuko Erriberako jaietako programak bildu dituzte. Zaharrena 1964koa.

ZAWPeko kideek hizketaldi eta elkarrizketa ugari izan dituzte auzotarrekin, zaharrek eta gazteekin, enpresariekin eta langileekin, enpresa handi zein txikiakoenekin. Dendariekin ez, dendarik zabalik ez dagoelako. Zabalik eusten zioten azken

dendak eta estankoak duela urte batzuk itxi zuten. Eta batetik bestera ibiliz elkarrizketatu dute Mari Mar eta bere bitartez Josean eta Joseanen bitartez Begoña eta abar luze bat.

Elkarrizketatuen artean, “denetik dago”, dio Ruthen. Adineko jende, “gehien kontatzeko duena izan arren, itxi samarra da, eta kostatu zaigu”, aitortu du. Gazteekin, berriz, errazagoa izan da. “Web gunean sartu dira eta bertan ikusi dute zertan ari garen”.

Bada adinekoek egindako ekarpenetan errepikatu duten ideia bat. “Diotenez, lehenengo Deustuibarrak eta Zorrotzaurrek ez dute zerikusirik oraingoekin. Lehen auzo dotoreak ziren, mugimendu eta bizitza handikoak. Enpresa, auzotar eta batik bat egunero joan-etorria egiten zuen langile kopurua handia zen, eta horri esker eusten zioten zabalik dendek”.

Bilboko parte izanik ere, auzotarrantzat “herri bat” da Deustuibarra eta Zorrotzaurre Ibai Mikelajauregi Haceria Arteak elkarteko kidearen arabera. “Denek ezagutzen dute elkar. Komunikazio erraza ez dutenez, elkarbizitza estua izan dute. Ogia, egunkaria eta beste lauzpabost gauza erosteko aukera izango balute auzotar batzuk ez lirakeke irtengo, baina egun Deustura joan behar dute edozertarako”.

Auzoaren garai loriatsuak gogoan dituztelako, adinekoak “baikorrakoak” dira etorkizuneko auzoari buruz hausnartzen dutenean. Tania Diez Haceria Arteak elkarteko kidearen esanetan, “auzoaren garrantziaren harrotasunari eusten diote, eta horregatik berriro ere auzoa handi izango den itxaropena dute”. Gazteagoak, aldiz, mesfidatiak dira. Etorkizunean 15.000 auzokide izango dira, eta “orain dagoen bizimodua pikutara joango dela pentsatzen dute”. Kritiko agertu dira plan urbanistikoaekin. “Hemen gaude, kontutan izan gaitzatue’, esan zieten erakundeel” parte-hartze prozesua aldaraziz. Ildo ho-



rretan, antolatu zen Zorrotzaurre jasangarriagoaren aldeko foroa “oso topagune aberasgarria izan zen, nahiz loteslea ez izan”.

Azken urteotan hainbat eraikin eraitsi dituzte eta gehiago ere eraitsiko dituzte aurrerantzean. Eraispent horien irudiak eta testigantzak jasotzea garrantzitsutzat jotzen dute. Tartean daude Haceria Arteak elkarteak kudeatzen dituen pabilo bi ere. Izan daiteke bi urte barru, izan daiteke arinago; ez dakite zehatz noiz. Horregatik aurten, elkarteak 20 urte betetzen dituzte, elkartekideak ere atzera begira jarriko dira, “gure historia propioa gogortzeko”.

Deialdia

Kontatzeko ezer daukan edozein pertsona entzuteko prest daude Ruth, Ibai eta Tania. “Auzoari buruzko bere ikuspuntua eman nahi duen edonori”. Ez dute zertan auzotarrak, auzotar ohiak, auzoko langileak edota langile ohiak izan behar, horiek ere bai, inguruko jendeak ere parte har dezake. “Deustukoek ere zeresana izango dute, memoria kolektiboa osatzerako orduan”. Izan ere, Ruthen aburuz, “auzo honetako historia kolektiboa da, benetako historia da finean. Hirietan gertatu ohi da historia jende zehatzak kontatu ohi duela, eta hau ez da salbuespena. Historia bizi dutenek kontatu behar dute, nahiz nire diskurtsoak zurearekin talka egin. Horregatik jendea anima dadila nahi dugu”.

www.zawp.org/memoria-visual

Testua
Lur Mallea